

1. GENERO INDARKERIA JASATEN DUTEN BIKTIMEN BERARIAZKO ESKUBIDEAK.....	2
1.1. NOR DA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA?	2
1.2. NOLA EGIATZATZEN DA GENERO INDARKERIAREN EGOERA?	3
1.3. INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA	3
1.3.1. <i>Informazio eta aholkularitza juridikorako 016 zerbitzua</i>	3
1.3.2. <i>Genero indarkeriako kasuetarako prebentzio eta laguntza baliabideetarako web-a4</i>	
1.4. GIZARTE LAGUNTZA INTEGRALA JASOTZEKO ESKUBIDEA	5
1.5. DOAKO, BEREHALAKO ETA BEREZIKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ESKUBIDEA	6
1.5.1. <i>Doako laguntza juridikorako eskubidea</i>	7
1.6. LAN ESKUBIDEAK.....	7
1.6.1. <i>Besteren konturako langileen eskubideak</i>	8
1.7. GIZARTE SEGURANTZAKO ESKUBIDEAK	10
1.7.1. <i>Gizarte Segurantzako kotizaziorako eskubideak</i>	10
1.7.2. <i>Gizarte Segurantzako prestazioei buruzko eskubideak</i>	10
1.8. LAN-ESKUBIDEAK ETA LAN MUNDUAN TXERTATZEKO ESKUBIDEAK.....	12
1.8.1. <i>Enplegu programa zehatza</i>	12
1.8.2. <i>Genero indarkeriaren biktima diren langileen ordezpenerako bitarteko-kontratua</i>	13
1.8.3. <i>Norberaren konturako jarduera bat hasteko pizgarriak</i>	13
1.8.4. <i>Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresentzako pizgarriak</i>	13
1.9. FUNTZIONARIO PUBLIKOEN ESKUBIDEAK	14
1.10. ESKUBIDE EKONOMIKOAK.....	15
1.10.1. <i>Genero indarkeria jasaten duten eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako berariazko laguntza ekonomikoa</i>	15
1.10.2. <i>Gizarteratzeko errenta aktiboa</i>	16
1.10.3. <i>Elikadura-pentsioak ez ordaintzeagatiko aurrerakinak</i>	17
1.10.4. <i>Babestutako etxebizitza zein zahar egoitza publikoetan plaza bat eskuratzeko lehentasuna</i>	18
1.11. BEREHALA ESKOLATZEKO ESKUBIDEA.....	19
2. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUME ATZERRITARREN ESKUBIDEAK	20
2.1. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUME ATZERRITARREK ESPAINIAN BIZILEKUA IZATEKO EGOERA	20
2.2. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ETA EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN EMAKUME ATZERRITARREN BABESPENA	23
2.3. ASILO ESKUBIDEA	25
2.4. ETORKINEN BORONDATEZKO BUELATZEKO PROGRAMAK	25
3. DELITUAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK ZEINTZUEN JABE DIREN HALABER, GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK.....	27
3.1. SALAKETA JARTZEKO ESKUBIDEA	27
3.2. BABES AGINDU BAT ESKATZEKO ESKUBIDEA	27
3.3. JARDUNBIDE PENALEAN ALDERDI IZATEKO ESKUBIDEA: AKZIOAK ESKAINTZEA	30
3.4. GAUZA ITZULTZEKO, KALTEA KONPONTZEKO ETA SORTUTAKO KALTEAREN ORDAINA JASOTZEKO ESKUBIDEA	31
3.5. JARDUERA JUDIZIALEI BURUZ INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA	31
3.6. GENERO INDARKERIAREKIN LOTUTAKO JARDUNBIDEEN ESPARRUAN BIKTIMAREN DUINTASUNA ETA INTIMITATEA BABESTEKO ESKUBIDEA	32
3.7. DELITUEN BIKTIMENTZAT LAGUNTZAK	33

1. GENERO INDARKERIA JASATEN DUTEN BIKTIMEN BERARIAZKO ESKUBIDEAK

1/2004 Lege Organikoak, abenduaren 28koak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoak (2004ko abenduaren 29ko 313 zk. EBO), genero indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumeei zenbait eskubide ematen eta bermatzen dizkie, horien bidez gai izan daitezten indarkeriazko harremana bukatzeko eta beren bizi proiektua berreskuratzeko.

Eskubide hauek unibertsalak dira, hots, genero indarkeriazko ekintzaren bat jasan duten emakume guztiei dagozkie, dena delarik ere beren jatorria, erlijioa nahiz beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial.

1.1. Nor da genero indarkeriaren biktima?

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 1. art.)

1/2004 Lege Organikoaren arabera, genero indarkeriaren biktima dira beren ezkontideen eskutik edota beraiekin antzeko afektibitate harremanak dituzten edo izan dituzten pertsonen eskutik (elkarbizitzarekin edo gabe), indarkeria jasaten duten emakumeak, Indarkeria honek indarkeria fisiko edo psikologiko mota oro hartzen duelarik barne –sexu askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, bortxak edota askatasunaren ukatze arbitrarioa barne-.

Indarkeria mota hau gizonek emakumeen gain darabiltzaten botere harremanen, desberdintasun egoeraren eta diskriminazioaren adierazpenik larriena da.

Gainera, 1/2004 Lege Organikoak emakumeen seme alabak gehitzen ditu biktimaren kontzeptura bere Zioen Azalpenaren arabera eta 5, 7, 14, 19.5,

61.2, 63, 65, 66 artikuluetan eta 17. Xedapen Gehigarrian begiesten diren eskubide ugari aitortzen zaizkie.

1.2. Nola egiaztatzen da genero indarkeriaren egoera?

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 23, 26 eta 27.3. art.)

Orokorrean, genero indarkeriaren egoerak ematen dituen eskubideen aitortpena ondorengo baldintzetan egiaztatzen da: epai-kondenatzailea, biktimaren aldeko babes agindua eta, salbuespen gisa, Fiskaltzaren txostena, non demandatzailea genero indarkeriaren biktima izan daitekeenaren zantzuak azaltzen diren, babes agindu bat ematen den arte.

Hala ere, eskubide batzuen aitortpenerako bere araudi erregulatzaileak zehazten du zeintzuk diren genero indarkeriaren egoera egiaztatzeko bideak.

1.3. Informazioa jasotzeko eskubidea

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 18. art.)

Informazioa jasotzeko eskubidea bermaturik dago ondorengo zerbitzuen bidez:

1.3.1. Informazio eta aholkularitza juridikorako 016 zerbitzua

- Doako telefono zerbitzu bat hiru zifrako zenbaki motz baten bidez: 016.
- Entzuteko eta/edo hitzegiteko urritasuna daukaten pertsonen eskura: 900 116 016 zenbakiaren bidez, mugikor baten bidez, PDA bat, edo testu telefono baten bidez (DTS).
- Eguneko 24 orduetan erabilgarria, urteko 365 egunetan.
- Unibertsitatea: Gaztelera, Katalana, Galiziera eta Euskera. Honetaz gain, Ingelesa, Alemaniera, Arabira, Bulgariera, Txinera, Potugalera,

Errumaniera, Errusiera; eta astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 18:00etara, beste 42 hizkuntzetan. Horrela, estaldura maila desberdinekin, 53 hizkuntzetan erantzuten da.

- Pertsona erabiltzaileen datuen konfidentzialtasuna.
- Deien bideraketa ondorengo supostuetan:
 - Larrialdi egoera batekin erlazionaturiko dei bat denean, 112 telefonora bideratuko da.
 - Emakumeari buruzko informazio orokorrarekin erlazionaturiko dei bat denean, Emakumearen Erakundera bideratuko da.
 - Autonomia Erkidego baten informazio zehatz batekin erlazionaturiko dei bat denean.
 - Adingabetuen aldetik egindako deiak ANAR Telefonora (Haur eta Nerabeen Laguntza) bideratuak izango dira.

Gainera kontsultak Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunaren Ministerioko web orrian azaldu daitezke.

1.3.2. Genero indarkeriako kasuetarako prebentzio eta laguntza baliabideetarako web-a

Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunaren Ministerioko web orrian aurki daiteke, Berdintasun Sailean:

<http://wrap.seigualdad.gob.es/recursos/search/SearchForm.action>

Administrazio publikoak eta gizarte erakundeek hiritarren eta genero indarkeriaren biktimen esku jarri dituzten baliabide desberdinen (polizia, epaitegiak, informazioa, arreta eta aholkularitza) mapa aktiboen kokalekua onartzen du.

1.4. Gizarte laguntza integrala jasotzeko eskubidea

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 19. art.)

Osasun fisiko eta moralerako eskubidea gauzatzeko, genero indarkeria jasaten duten emakumeek, baita beren seme-alaba adingabeek ere, honako gizarte zerbitzu hauek jasotzeko eskubidea dute:

- Arreta
- Larrialdietarako laguntza
- Sostengua eta harrera
- Berreskuratze integrala

Zerbitzu hauen helburua indarkeriazko egoeraren ondorioz sorturiko premiak asetzea da, eta biktimak indarkeria jasan aurretik bizi zuen egoera berreskuratzea edo, behinik behin, kalteen ondorioak arintzea.

Zerbitzu hauei esker emakumeek honakoa lor dezakete:

- Abiaraz ditzaketen jardunbideen eta beren eskubideen inguruan aholkularitza jasotzea.
- Laguntza material, mediko, psikologiko eta soziala eskatzeko zein zerbitzutara jo dezaketen jakitea.
- Beren segurtasuna bermatu eta beren oinarrizko beharrak ase ditzaketen ostatu-baliabide desberdinak erabiltzea (larrialdietarako laguntza, aldi baterako harrera, babes etxeak eta abar).
- Beren osasun fisiko eta/edo psikologikoa berreskuratzea.
- Beren burua prestatzea, gizarteratzea edo lan-munduratzeko, eta berreskuratze integralaren ibilbide osoan zehar sostengu psiko-soziala jasotzea biktimizazio bikoitza saihesteko xedez.

Gizarte laguntza integralerako eskubidea, genero indarkeria pairatzen duten familietan bizi diren adingabeei ere aitortzen zaie. Gizarte zerbitzuek nahikoa leku izan behar dute genero indarkeria jasaten duten emakumeen seme-alabak hartzeko, eta hauei arreta egokia eskaintzeko prestakuntza berezia duten langileak izan behar dituzte, adingabe horiei kalte psikiko eta fisikoak eragin diezazkieketen egoerak eraginkortasunez prebenitu eta saihesteko helburuz.

1.5. Doako, berehalako eta bereziko laguntza juridikorako eskubidea

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 20. art.; 1/1996 Legea, urtarrilaren 10ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa; 996/2003 Errege Dekretua, uztailak 25ekoa, bere bidez Doako Laguntza Juridikoaren Araudia onartzen da)

Genero indarkeria jasaten duten emakumeek doako laguntza juridikoa jasotzeko eskubidea daukate, auzitan jarduteko baliabideak dituzten edo ez kontutan izan gabe. Laguntza hau berehalakoa izango da eta jasandako indarkeria egoerarekin zerikusia daukan edo honen ondorio diren jardunbide eta prozedura administratiboetan emango da.

Doako laguntza juridikoaren onura jasotzeari dagokionez, biktima izaera salaketa edo kereila burutzerakoan edo zigor prozedura hasten denean lortuko da, eta zigor prozedura indarrean dagoen bitartean edo, hau amaitzean, epai kondenatzailea emanda ere bai. Doako justiziaren onura galdu egingo da absoluzio epai finkoa ematen bada edo zigor prozedura irmoki amaitutzat jotzen bada, eta ez da beharrezkoa izango ordura arteko doako zerbitzuen kostua ordaintzea.

1.5.1. Doako laguntza juridikorako eskubidea

Doako laguntza juridikorako eskubideak honako prestazio hauek hartzen ditu barne:

- Prozesuaren aurreko doako aholkularitza eta orientazioa.
- Jardunbide judizial eta administratiboetarako abokatuaren eta prokuradorearen doako defentsa eta ordezkariak.
- Egunkari ofizialetan iragarkiak edo legezko abisuak sartzeko doako zerbitzua.
- Tasa judizialak zein errekurtsioak jartzeko beharrezkoak diren deposituak ordaintzearen exentzioa.
- Doako peritu laguntza.
- Notario-dokumentuak doan edota muga-zergen % 80ko murrizketarekin lortzea.

Doako laguntza juridikorako eskubidearen eskatzaileak adierazi beharko du zer prestazio aitortzea eskatzen duen. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeak beti ekarriko du xedatutako tasak eta gordailuak ez ordaintzea.

Behin doako laguntza juridikorako eskubidea aitortuta, biktimaren interesen defentsa, beharrezkoa den prozesu guztietan, Genero Indarkeriaren Ofiziozko Txanda Bereziko abokatuak berak egingo du, honen hautaketa Abokatuaren Elkargoak berak egingo duen.

1.6. Lan eskubideak

(1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 21. art)

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei ematen zaizkien eskubideen aitortpenak helburu bezala dauka hauek, jasaten duten indarkeria dela eta, lan

merkatua ez uztea. Horretarako, eskubide batzuk aitortzen zaizkie, lana eta genero indarkeriaren biktima egoeraren adiskidetzea lortzea, hauen babespena bermatzen delarik lanpostua uztea behartuak ikusten badira, bai epe mugatu batez edo betirako bada ere, eta gainera emakume hauek lanean txertatzea saiatzen da enplegurik ez duten kasuetan.

Eskubide horiek erabili ahal izateko, emakume langileek genero indarkeriazko egoera frogatu behar dute, erasotzailea zigortzen duen epaiaren bidez, babes-aginduaren bidez edo, salbuespenez eta babes -agindua eman bitartean, emakumeak genero indarkeria jasaten duela frogatzen duten zantzuak badirela zehazten duen Ministerio Fiskalaren Txostenaren bidez.

1.6.1. Besteren konturako langileen eskubideak¹

(Langileen Estatutuko Testu bateginaren 37.7, 40.3.bis, 45.1.n, 48.6, 49.1, 52.d, 55.5.b artikulua, martxoak 24eko 1/1995 Legegintzako Errege-dekretuak onartua)

- Lanaldia murrizteko eskubidea, soldata ere proportzio berean murriztea ekarriko duelarik. Honen helburua genero indarkeriaren biktima den emakumeak bere babespena edo gizarte laguntza integralaren eskubidea erabiltzea izango da.
- Lanaldia berrantolatzeko eskubidea, ordutegia moldatuz, ordutegi malgua ezarriz edota enpresan lanaldia antolatzeko erabiltzen diren beste modu batzuk baliatuz.
- Mugigarritasun geografikoraKo eskubidea, lehenengo 6 hilabeteetan lanpostuaren erreserbarekin.
- Lan-harremana eten eta lanpostua gordeta izateko eskubidea, sei hilabete baino gehiagoko iraupena ezin izango duelarik izan.

¹ Hitzarmen Kolektiboek eta enpresa-hitzarmenek hobekuntzak ezar ditzakete eskubide hauetan.

- Emakumeak bere lan kontratua amaitzeko eskubidea izango du, kasu honetan, langilea legezko langabezia egoeran egongo delarik eta, eskatzen diren gainontzeko baldintzak betetzen baditu, honek langabezia prestazioa edo sorospena jasotzeko eskubidea izango du.
- Lanerako hutsegiteak edo puntualtasun faltak, baldin eta hauek genero indarkeriarengatik gauzatuak egon diren, frogatuak egongo dira, arretarako gizarte zerbitzuek edo osasun zerbitzuek hala egiaztatzen dutenean.
- Bere lan eskubideen erabilpenagatik genero indarkeriaren biktima den langilearen kaleratzearen baliogabetasuna.

1.6.2. Beregaineko langileen eskubideak

(1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 21.5. art.) 20/2007 Legea, uztailak 20ekoa, Lan Autonomoko Estatutuen erregulatzailerak; 32/2010 Legea, abuztuak 5ekoa, non babespen sistema zehatz bat ezartzen den langile autonomoen jardura etenaldiagatik; 1541/2011 Errege dekretua, urriak 31koa, non 32/2010 Legea garatzen den, abuztuak 5ekoa)

- Ekonomikoki menpekoak diren langile autonomoen eskubideak:
 - Lan-ordutegia langilearen beharren arabera antolatzeko eskubidea.
 - Beren kontratuzko harremana uzteko eskubidea.
 - Genero indarkeriaren egoera justifikaturiko arrazoia izango da langilearen jardura etenean.
- Jardura etenaldiko legezko egoeran egongo dira, beren segurtasuna dela eta, genero indarkeriagatik beren jardura eteten duten langile autonomoak, bai behin-behinekoa eta baita behin-betikoa bada ere etenaldi hau.

1.7. Gizarte Segurantzako eskubideak

(1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 21. Art.)

1.7.1. Gizarte Segurantzako kotizaziorako eskubideak

- Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezi baten harpidetza egin da genero indarkeriaren biktima diren langileek beren lanaldiaz gain, soldata ere proportzio berean murrizten dutenean.

(TAS/2865/2003 Ordena, urriak 13koa, 21. Art. Gizarte Segurantzako sisteman hitzarmen berezi bat erregulatzen da)

- Genero indarkeria jasaten duten langile beregainek, beren babesa bermatzeko edo gizarte laguntza integralerako eskubidea erabiltzeko beren jarduna eten behar badute, ez dute kotizatu beharrik izango sei hilabetez.
- Lan-harremanaren etenaldia Gizarte Segurantzako prestazioetarako benetako kotizazio gisa kontatuko da besteren konturako langileentzat, eta beregaineko emakumeentzat ere benetako kotizazio bezala hartuko da nahiz eta kotizazio betebehar hori ez bete.

(1335/2005 Errege Dekretuko xedapen gehigarri bakarra, azaroak 11koa, Gizarte Segurantzako famili laguntzak erregulatzen dira)

1.7.2. Gizarte Segurantzako prestazioei buruzko eskubideak

- Amatasun eta aitatasun prestazioei dagokienez, genero indarkeriaren biktima diren, bai beregaineko langileak eta baita besteren konturako langileak ere, alta emanda daudenaren egoera izango dute benetako kotizazio bezala kontsideratuak dauden epeen bitartean.

(295/2009 Errege Dekretua, martxoak 6koa, Gizarte Segurantzako sistemaren prestazio ekonomikoak erregulatzen ditu amatasun, aitatasun, haurdunaldiaren arrisku eta edoskitzearen arrisku arloetan)

- Genero indarkeriaren biktima izateagatik lan kontratua amaitzen duten eta beharrezko eskakizunak betetzen dituzten emakumeen erretiro aurreratuko pentsiorako eskubidea.

(Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 161 artikulua, bis.2, ekainak 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua)

- Beharrezko eskakizunak betetzen dituzten genero indarkeriaren biktima diren emakumeen suposatutako banaketa eta dibortzio kasuetan alargun pentsioa jasotzeko eskubidea.

(Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 174.2 artikulua, ekainak 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua)

- Dolozko giza hilketa batengatik epai irmo batekin kondenatua izan den pertsona baten alargun-pentsioaren galtzea, baldin eta delitu honen ofenditua bere ezkontidea edo ezkontide ohia, edo bere izatezko bikotea edo bikote ohia den; eta kasu honetan umezurtzen zurztasun pentsioa handiagotu egingo da.

(Abenduak 28ko 1/2004 Lege Organikoa, lehenengo xedapen gehigarria, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa; abenduak 23ko 3158/1966 Dekretuko 38. artikulua; hemen onartzen da Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra eman behar dituen gizarte prestazioetako guztizkoak zehazten dituen Erregelamendu Orokorra eta baita hauek jasotzeko bete behar diren baldintzak ere)

- Langabeziako prestazioa eta sorospena lortu ahal izateko, beharrezkoak diren baldintzak betetzeaz gain, emakume langileak bere lan kontratua bere borondatez uzteko edo amaitzeko erabakia hartzen

duenean, genero indarkeriaren biktima dela ulertzen da, kasu honetan legezko langabezia egoeran aurkituko litzatekeelarik.

(Abenduak 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa, 21.2 artikulua; Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategineko 208.1.1.e) eta 208.1.2 artikulua, ekainak 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartua)

1.8. Lan-eskubideak eta lan munduan txertatzeko eskubideak

1.8.1. Enplegu programa zehatza

(1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa: 21. Art; Azaroak 21eko 1917/2008 – Errege Dekretua, genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak gizarte eta lan munduan txertatzeko programa onartzen duena)

Genero indarkeria jasaten duten emakumeak, nor Enplegu Zerbitzu Publikoan lan eskatzaile bezala inskribaturik dauden, lan mundurako txertaketarako programan gehituak izan daitezke. Programa honek ondorengo neurriak hartzen ditu:

- Gizarte eta lan munduan txertatzeko ibilbide banakatua, pertsonal espezializatuak egina.
- Beste baten kontu gizarte eta lan munduan txertatzea sustatzeko trebakuntza programa zehatza.
- Norberak jarduera berri bati ekin diezaion sustatzeko pizgarriak.
- Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresentzako pizgarriak.
- Mugikortasun geografikoa sustatzeko pizgarriak.

- Soldata desberdintasunak konpentsatzeko pizgarriak.
- Hitzarmenak enprekin genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeen gizarte eta lan mundurako txertaketa zein mugikortasun geografikoa erraztearren.

1.8.2. Genero indarkeriaren biktima diren langileen ordezpenerako bitarteko-kontratua

(1/2004 Legea, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa; 21.3 artikulua)

Genero indarkeriaren biktima diren emakume langileak ordezkatzeko bitarteko-kontratuak sinatzen dituzten enpresek Gizarte Segurantzako enpresako kuotaren hobari bat jasotzeko eskubidea daukate. Emakume hauek beren lan kontratua utzi dutela edo mugikortasun geografikoa edo lan zentro aldaketa eskatu dutela ulertzen da.

1.8.3. Norberaren konturako jarduera bat hasteko pizgarriak

(Ekainak 5eko TAS/1622/2007 Ordena, enplegu autonomoko sustapen programaren diru laguntzetarako emakidak erregulatzen dituen)

Genero indarkeria jasaten duten emakumeak, nor Enplegu Zerbitzu Publikoan lan eskatzaile bezala inskribaturik dauden, langile autonomoak bezala ezartzen badira, diru laguntza bat jaso dezakete. Honen helburua enpresaren sorketa eta abiatzea errazagoa egitea da, eta horretarako interesen murrizketa bat egingo zaie eta inbertsioak finantzatzeko maileguak emango zaizkie.

1.8.4. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresentzako pizgarriak

(Abenduak 29ko 43/2006 Legea, hazkunde eta enpleguaren hobekuntzarako)

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresek, Gizarte Segurantzako enpresako kuotaren hobari bat jasotzeko

eskubidea izango dute, egiten den kontratuaren behin-behineko edo behinbetiko karakterearen arabera aldatuko delarik hau.

1.9. Funtzionario publikoen eskubideak

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa, 24 – 26. Art; 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, langile Publikoen Oinarrizko Estatutuari buruzkoa; TAS/2865/2003 Ordena, urriak 13koa, 21. Art. Gizarte Segurantzako sisteman hitzarmen berezi bat erregulatzen da)

- Lanaldia berrantolatzeko edo antolatzeko eskubidea, ordutegia moldatuz, ordutegi malgua ezarriz edota Administrazioak ezartzen dituen baldintzetan aurkitzen diren lanaldia antolatzeko beste modu batzuen bidez.
- Mugikortasun eskubidea genero indarkeriagatik.
- Eszedentzia eskubidea. Lehenengo sei hilabeteko epean, funtzionarioak bere lanpostua gorde diezaiotela eskatzeko eskubidea dauka; etorkizunean tarte hori konputagarria izango da antzinasun, ibilbide profesional zein ezar litezkeen Gizarte Segurantzako erregimen eskubideei dagokienez.
- Genero indarkeria jasaten duten biktima funtzionarioek arrazoituta lukete egun osoan edota tarte batean lanera ez agertzea, beti ere dagokion gizarte-arreta edo osasun zerbitzuek ezarritako epe zein baldintzetan.
- Gizarte Segurantzarekin hitzarmen berezi baten harpidetza egin da genero indarkeriaren biktima diren funtzionarioek beren lanaldiaz gain, soldata ere proportzio berean murrizten dutenean.

1.10. Eskubide ekonomikoak

1.10.1. Genero indarkeria jasaten duten eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako berariazko laguntza ekonomikoa

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa; 27. Art.; 1452/2005 Errege Dekretua, abenduaren 2koa. Izapidetzeko prozedurari buruzko araudia laguntza eskatzen den Erkidego edo Hiri Autonomoak horri buruz argitaratu duena da)

Laguntza ekonomiko hau genero indarkeria jasaten duten eta honako baldintza hauek betetzen dituzten emakumeei dago zuzendua:

- Aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kenduta, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 gainditzen duen hilabeteko errentarik ez izatea.
- Lana lortzeko zailtasun bereziak izatea, adinaren, prestakuntza orokor nahiz bereiztua ez izatearen edo egoera sozialaren ondorioz; zailtasun horiek justifikatu egin beharko dira Enplegu Zerbitzu Publikoak emandako Txostenaren bidez.

Laguntza ekonomiko hau epe bakarrean ordainduko da eta zenbatekoa, oro har, dagozkion langabezia sorospeneko hileko kopuru baten arabera kalkulatu da; emakumeak senitartekoen ardurarik duen kasuan edo ez hau aldatu egingo da, eta baita emakumeak elbarritasun maila aitortzen zaion senitarteko bat duenean ere edo emakumeak berak elbarritasun hau aitortua duenean.

Laguntza hau bateragarria da Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimei Laguntza eta Asistentzia emateko abenduaren 11ko 35/1995 Legean aurreikusten diren laguntzekin. Bestalde, ez da bateragarria xede berbera duten beste laguntza batzuekin, ezta Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren programan parte hartzearekin ere.

Laguntza honek ez du, inondik inora, errenta konputagarriaren kontsiderazioa izango kotizazio gabeko pentsioen jasotzerako.

1.10.2. Gizarteratzeko errenta aktiboa

(1369/2006 Errege dekretua, azaroak 24koa, behar ekonomiko bereziak eta lana aurkitzeko zailtasunak dituzten langabetuak Gizarteratzeko Errenta Aktiboaren programa arautzen duena)

“Gizarteratzeko errenta aktiboaren programa” onartuta dauden langabetuei aitortzen zaien laguntza ekonomikoa da; programa honen bidez lan merkatuan sartzeko aukerak handitzera bideratutako jarduerak gauzatzen dira.

Gizarteratzeko errenta aktiboaren programan onartua izateko eta laguntza ekonomikoa honen onuradun izateko, genero indarkeria jasaten duen emakumeak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Genero indarkeria jasaten duela frogatzea.
- Enplegu eskatzailea izatea, baina ez da beharrezkoa enplegu eskatzaile gisa 12 hilabetez jarraian izena emanda egotea.
- Bere erasotzailearekin ez bizitzea.
- 65 urte baino gazteagoa izatea, nahiz eta ez den beharrezkoa izango 45 urte edo gehiago izatea.
- Aparteko bi ordainsariren zati proportzionala kenduta, indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 gainditzen duen hilabeteko inolako errentarik ez izatea.
- Gizarteratzeko errenta aktiboaren programa berri baten onuradun izan daiteke emakumea, eskaera-data baino 365 egun lehenago beste programa baten onuraduna izan bada ere.

Gizarteratzeko errenta aktiboaren zenbatekoa unean indarrean dagoen hilabeteko Ondorio Anitzeko Errenta Adierazle Publiko (IPREM) delakoaren % 80koa da.

Gainera, programan onartua izateko eskaera egin aurreko 12 hilabeteetan edota programan parte hartzen ari den bitartean biktima bizilekuz aldatzera behartuta izan baldin bada genero indarkeriaren ondorioz, ordainketa bakarreko laguntza gehigarria jasoko du, gizarteratzeko errenta aktiboaren hiru hilabeteko zenbatekoaren baliokidea hain zuzen ere.

1.10.3. Elikadura-pentsioak ez ordaintzeagatiko aurrerakinak

(Abenduak 9ko 1618/2007 Errege Dekretua, Elikagaien Ordaintzea Bermatzeko Funtsaren Antolaketa eta Funtzionamendua)

Elikagaien Ordaintzea Bermatzeko Funtsaren bidez, judizialki onartutako hitzarmenetan edo banantzeko, dibortziatzeko, ezkontza deuseztatzeko, seme alabatasuneko edo elikagaietako prozesuetako ebazpen judizialetan onartu diren elikagaien ordainketa (ez ordainduak) betetzea bermatzen da, horretarako kantitate bat emango delarik aurrerakin gisa.

Aurrerakinaren pertsona onuradunak, orokorrean, judizialki onartua eta ez ordaindua dagoen elikagaien eskubidearen titularrak diren seme-alabak dira. Hauek familia-unitate baten parte dira eta beren baliabide eta sarrera ekonomikoek, urtero kalkulatuak eta bertan kontzeptu guztiak sartuz, ezin izango dute ondorengo kopurua gainditi: aurrerakin eskaeraren unean indarrean dagoen Ondorio Anitzeko Errenta Adierazle Publiko (IPREM) delakoaren urteko kopurua, familia unitatea osatzen duten seme-alaba adingabeen kopuruari dagokion koefizientearekin biderkatzean irteten den kantitatea.

Pertsona onuradunek eskubidea daukate elikagaien ordainketa bezala judizialki onartu zaien hileko aurrerakina jasotzeko, baldin eta honek ez duen hileko 100 euroko kopurua gainditzen. Gehienezko hemezortzi hilabetetan zehar jaso ahal izango da aurrerakin hau.

Adingabe hauen (aurrerakina eskatzen eta jasotzen dutenak) zaintza eta kustodia daukan pertsona genero indarkeriaren biktima baldin bada, Funtseko

aurrerakinak jasotzeko benetako behar bat dagoela ulertzen da, eta ondorioz presako prozedura bat hasten da, eskaera hau ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango delarik.

1.10.4. Babestutako etxebizitza zein zahar egoitza publikoetan plaza bat eskuratzeko lehentasuna

(Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriak jasotzen dituen Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 28. art.; maiatzak 14eko 1/2013 Legea, hipoteka-zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala bultzatzeko neurriei buruzkoa; apirilak 5eko 233/2013 Errege Dekretua, non etxebizitzaren alokairua, eraikuntzen birgaitzea eta hiri-berregituratzea eta berritzea sustatzeko Estatuko Plana arautzen den, 2013-2016)

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza eskatzeko lehentasunezko babes eskubidea daukan talde bat osatzen dute:

- Hipoteka exekuzio baten prozedura judizial edo estrajudizialean ebatzitako ohiko etxebizitzetatik kaleratzeko aginduak eteteari heltzeko aukera.
- Alokairuko Etxebizitzetarako Gizarte Funtsean sartzeko aukera. http://www.imserso.es/imserso_01/fsva/index.htm
- “Lehentasunezko sektore”tzat jotzen dira zailtasun ekonomikoak dauzkaten sektoreei alokairuko etxebizitzetara sarrera errazteko Estatuko Planean ezarritako laguntzetan.

1.11. Berehala eskolatzeko eskubidea

(Abenduak 28ko 1/2004 Lege Organikoa, 5. Art. eta hamazazpigarren xedapen gehigarria, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa)

Jasandako genero indarkeriazko ekintzen ondorioz bizilekuz aldatu behar izan duten emakumeen seme-alabek beren bizileku berrian berehala eskolatzeko eskubidea dute.

2. GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUME ATZERRITARREN ESKUBIDEAK

2.1. Genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek Espainian bizilekua izateko egoera

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa; 17.1 art.; 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa; 4/2000 Lege Organikoko Erregelamendua, apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartua; 240/2007 Errege Dekretua, otsailak 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako hiritarrek Espainian daukaten sarrera, zirkulazio askea eta bizilekuari dagokiona eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatuak buruzkoa.)

Genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek Espainian bizilekua izateko egoerak ondorengo aukerak biltzen ditu:

2.1.1. Europar Batasuneko estatu kideetako hiritarren familia-izaera duten edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatu bateko hiritarren familia-izaera duten emakume atzerritarrak.

(Otsailak 16ko 240/2007 Errege Dekretua, 9.4 art., Europar Batasuneko estatu kideetako hiritarrek Espainian daukaten sarrera, zirkulazio askea eta bizilekuari dagokiona eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Hitzarmenean parte hartzen duten beste Estatuak buruzkoa)

Ezkontza deuseztasuna, dibortzioa edo erregistraturiko bikotearen ezereztean dagoen kasuetan bizileku eskubidea mantendu ahal izateko, Europar Batasuneko Estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoko Hitzarmeneko Estatu bateko nazionala ez den emakumeak, genero indarkeriaren biktima izan dela egiaztatu beharko du erregistraturiko bikotean edo ezkontzan. Hau egiaztatuta gelditzeko beharrezkoa izango da, behin-

behineko egoera batean, biktimaren aldeko babes agindu bat edo Ministerio Fiskalaren txosten bat egotea, bertan genero indarkeriaren zantzuak egon direla azalduko delarik; eta behin-betiko egoera batean ondoren, noiz alegaturiko baldintzak gertatu direla ondorioztatzen dituen ebazpen judicial bat egongo den.

2.1.2. Erkidegokoa ez den emakume atzerritarra: genero indarkeriagatik bizileku eta lan baimenerako dauden bi motatako baten titularra izan daiteke:

- Bizileku eta lan baimen independentea beren ezkontide edo bikotearekin berrelkarturiko emakume atzerritarrentzat:

(4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 19.2 art.; 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko 59.2 art., apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartua)

- Emakumearen alde babes agindu bat dagoenean edo Ministerio Fiskalak, genero indarkeriaren zantzuak daudela azaltzen duen txosten bat egiten duenean, honek baimena lortu dezake.
- Baimenaren iraupena: 5 urte.
- Egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek, salbuespeneko inguruabarrengatik, bizileku eta lan baimena lortu dezakete:

(4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 31 bis art.; 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko 131 eta 134. art, apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartuak)

- Emakumearen alde babes agindu bat egon denetik edo Ministerio Fiskalak, genero indarkeriaren zantzuak daudela

azaltzen duen txosten bat egiten den unetik, baimen eskaera bat egin daiteke.

- Emakumea genero indarkeriaren biktima izan dela ondorioztatzen duen kondena-epai edo ebazpen judizial batekin amaitzen den prozedura penal bat dagoenean baimena emango da, eta baita inputatuak egonleku ezezaguna daukanean edo salatuaren kanporatzeagatik behin-behineko largespena egiten denean ere.
- Baimenaren iraupena: 5 urte. Hala ere, 5 urte hauen bitartean emakumea iraupen luzeko bizileku egoeran sar daiteke, aurrez eskera eginik. Honetarako behin-behineko bizileku eta lan baimen baten titularra izan den denbora zenbatuko da.
- Salbuespeneko inguruabarrengatik bizileku baimena beren seme-alaba adingabeentzat, ezgaitasun bat daukatenean edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenean. Eta lan baimena 16 urte baino gehiago edukiz, salaketaren unean Espainian zeuden seme-alabentzat ere: bizileku eta lan baimen hau emakume atzerritarrak eskatu beharko du salbuespeneko inguruabarrengatik bere baimena eskatzen duen unean, edo prozesu penala irauten duen beste edozein unetan ere. Honen emakida eta iraupena, egoera irregularrean dauden emakume atzerritarrek salbuespeneko inguruabarrengatik jasotzen duten bizileku eta lan baimeneko baldintza berdinetan gertatzen da.
- Salbuespeneko inguruabarrengatik baimen hau ematen duen administrazioko agintari eskudunak, emakume atzerritarraren aldeko behin-behineko bizileku eta lan baimen bat emango du, eta, hala badagokio, behin-behineko bizileku eta lan baimenak emango dizkie beren seme-alaba adingabeentzat, ezgaitasun

bat daukatenean edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenean, baldin eta hauek Espainian aurkitzen ziren salaketaren unean. Behin-behineko baimen hauek, salbuespeneko inguruabarrengatik emandako baimenak betirako ematen edo ezeztatzen diren unean amaituko dira.

2.1.3. Behin-behineko bizileku baimena eta inorentzat lan egiteko baimena daukan emakume atzerritarrari, baimen hau epe agortzeagatik berrituko zaio baldin eta, genero indarkeriaren biktima izateagatik, lan kontratua azkentzen den edo lan-harremanaren amaiera gauzatzen den.

(4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 38.6 art.)

2.2. Genero indarkeriaren biktima diren eta egoera irregularrean dauden emakume atzerritarren babespena

(4/2000 Lege Organikoa, urtarrilak 11koa, atzerritarrek Espainian dauzkaten eskubide eta askatasunei buruzkoa eta hauen gizarteratzeari buruzkoa, 31 bis art.; 4/2000 Lege Organikoko Erregelamenduko 131 eta 134. art, apirilak 20eko 557/2011 Errege dekretuak onartuak)

- Genero indarkeriako egoera bat salatzean, emakume atzerritarren egoera irregularren berri emango balitz:
 - Espainiako lurraldean egoera irregular batean egoteagatik ez da administrazio prozedura zehatzailerik (arau-hauste larria) irekiko.
 - Salaketaren aurretik arau-hauste honengatik jada hasita zegoen administrazio prozedura zehatzailea eten egingo da eta, hala badagokio, onartuta dauden kanporatzeko edo itzultzeko aginduak ere eten egingo dira.

- Behin prozedura penala amaitutakoan:
 - Emakumea genero indarkeriaren biktima izan dela ondorioztatzen duen kondena-epai edo ebazpen judizial batekin, eta baita inputatuak egonleku ezezaguna daukalako auzia artxibatzen denean edo salatuaren kanporatzeagatik behin-behineko largespena egiten denean, emakume atzerritarraren aldeko behin-behineko bizileku eta lan baimena emango da eta, hala badagokio, behin-behineko bizileku eta lan baimenak emango zaizkie beren seme-alaba adingabeentzat, ezgaitasun bat daukatenean edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenean.
 - Kondena-epaia ez dagoenean edo genero indarkeria egon dela ondorioztatu ezin dezaken ebazpen batekin, behin-behineko bizileku eta lan baimena ezeztatuko zaio emakumeari salbuespeneko inguruabarrengatik eta, hala badagokio, behin-behineko bizileku eta lan baimenak kenduko zaizkie beren seme-alaba adingabeei, ezgaitasun bat daukatenei edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenei ere. Gainera, emakume atzerritarrari emandako behin-behineko bizileku eta lan baimenak eraginkortasuna galduko du eta, hala badagokio behin-behineko baimenak kenduko zaizkie beren seme-alaba adingabeei, ezgaitasun bat daukatenei edo beren beharrak betetzeko ahalmen objektiboa ez daukatenei ere. Gainera, Espainiako lurraldean egoera irregular batean egoteagatik administrazio prozedura zehatzailea hasi edo jarraituko da.

2.3. Asilo eskubidea

(12/2009 Legea, urriak 30ekoa, asilo eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituena)

Errefuxiatu baldintza genero indarkeriaren biktima diren emakumeei aitortuko zaie ondorengo kasuetan: gizarte talde, genero edo baldintza sexual kontuengatik jazarpena pairatzearen beldur izateko arrazoia izanik, bere jatorrizko herrialdetik ihes egin duten emakume atzerritarrak, hauek ezin dutelarik edo ez dutelarik nahi herrialde hauetako babesera heldu; edo aberrigabeak diren emakumeak, nazionalitaterik izan gabe eta beren jatorrizko herrialdetik kanpo egonik, arrazoi berdinegatik bertara itzuli ezin dutenean edo nahi ez:

- Asilo eskubidea aitortzeko beharrezkoa izango da jazarpen pairatzearen beldur izateko arrazoi hauek larriak izatea eta indarkeria fisikoa edo psikikoa azaltzen dituzten ekintzetan oinarrituak egotea, baita indarkeria sexuala ematen den kasuetan ere.
- Jazarpen arrazoiak baloratzeko, jatorrizko herrialdean nagusiak diren zirkunstantziak direla medio, gizarte talde zehatz baten kontzeptuan, orientazio sexual edo sexu-nortasuneko bereizgarri komun batean oinarrituriko talde bat gehituko da. Horrela, jatorrizko herrialdean nagusiak diren zirkunstantzien arabera, genero kontuengatik jazarpena pairatzearen beldur izateko arrazoia izanik, bere jatorrizko herrialdetik ihes egin duten pertsonak gehitzen dira.

2.4. Etorkinen borondatezko bueltatzeko programak

Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioko borondatezko bueltatzeko programek bueltatzeko aukera ematen diete pertsona atzerritarrei (etorkinak, asilo eskatzaileak, errefuxiatuak, babes subsidiarioa daukaten estatutudun

pertsonak), beraien jaioterrira bueltatzeko gogoa azaldu eta hauetako programaren batean ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenetan.

Genero indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek ondorengo programak jarraitu ditzakete:

- Bereziki ahulak diren pertsonen zuzenduriko borondatezko bueltatzeko programa lagundua: onuradun izango dira asilo eskatzaileak, babes subsidiarioa daukaten estatutudunak eta, egoera irregular batean egonik, udal gizarte zerbitzuen edo bueltatzea kudeatzen duen entitate espezializatuaren txosten baten bitartez indarkeria psikologiko, fisiko edo sexualaren biktimak direla frogatzen duten emakumeak.
- Gizarte-arretako borondatezko bueltatzeko programa: onuradun izango dira administrazio-egoera erregularrean dauden emakume atzerritar ahulak. Beharrezkoa izango da gizarte gabezia eta baliabide urritasuneko egoeran egotea, udal gizarte zerbitzuen edo bueltatzea kudeatzen duen entitate espezializatuaren txosten baten bitartez frogatuta, eta indarkeria psikologiko, fisiko edo sexualaren biktimak izatea.
- Jaitorrizko herrialdera bueltatzen diren langile atzerritarrei langabeziagatiko kontribuzio bidezko prestazioaren ordain metatu eta aurreraturako laguntza gehigarrietarako programa (APRE): onuradun izango dira langabeziagatiko kontribuzio bidezko prestazioaren ordain metatu eta aurreratua jasotzeko eskubidea onartua daukaten emakumeak, bueltatzea erraztea helburu, hain zuzen ere. Gizarte Segurantzaren eremuan Espainiarekin bi aldeko hitzarmena duen herrialde bateko nazionalak izan behar dira.

3. DELITUAREN BIKTIMEN ESKUBIDEAK ZEINTZUEN JABE DIREN HALABER, GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK

Genero indarkeria jasaten duten edo jasan duten emakumeek, Lege Integralak aitortzen dizkien berariazko eskubideez gain, legeek delituaren biktimei aitortzen dizkieten eskubide berberak dituzte. Horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

3.1. Salaketa jartzeko eskubidea

(Prozedura Kriminalaren Legea; 259 art. eta ss.)

Emakumeek eskubidea dute pairatzen dituzten genero indarkeriazko egoerak salatzeke.

Salaketaren bidez arau-huste penala izan daitekeen gertaeraren berri ematen zaio dagokion agintaritzari, hau da, Kode Penalak delitu edo hutsegite gisa definitzen duen jokabide bat salatzen da, zigor bat ezarriko zaiolarik arau-hausleari.

Behin salaketa aurkeztu denean eta hau agintaritza judizialari eman zaionean, honek delituzko egitate bat egon dela ulertzen badu, dagozkion akzio kriminalak hasiko ditu.

3.2. Babes agindu bat eskatzeko eskubidea

(1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa; 62. Art.; Prozedura Kriminalaren Legea: 544 ter art.)

Babes agindua dagokion organo judizialak ezartzen duen ebazpen judiziala da. Honek, delitu edo hutsegite bat egon denaren zantzuak daudenean, biktima arrisku egoera objektibo batean dagoela onartzen du eta bera babestea agintzen du jardunbide penala bideratzen den bitartean.

Babes ordenak, genero indarkeriaren biktima den emakumearen eta seme-alaben alde dauden oinarri kriminal eta zibileko kautela neurriak begiesten ditu dokumentu bakar batean, eta aldi berean Administrazio Publiko desberdinek biktimen alde ezarritako gizarte babespen mekanismoak jartzen ditu martxan.

Babes aginduarekin frogatuta gelditzen da emakumeak genero indarkeria jasaten duela, eta ondorioz 1/2004 Lege Organikoak aitortzen dituen eskubideak aitortzen zaizkio.

Agintaritzak judizialak genero indarkeria jasaten duen emakumearen alde edo, hala dagokionean, haren seme-alaben alde har ditzakeen babes neurriak penalak edo zibilak izan daitezke. Lehenengoan artean honako neurri hauetako bat edo batzuk ezar daitezke:

1. Erasotzaileari familia bizi den etxea uztea agintzen zaio.
2. Herri jakin batean bizitzea debekatzen zaio.
3. Erasotzaileari debekatu egiten zaio Epailak zehaztutako distantzia errespetatu gabe biktimarengana eta/edo honen senitartekoengana nahiz beste pertsona batzuekengana hurbiltzea.
4. Erasotzaileari debekatu egiten zaio edozein bitartekoren bidez (gutunez, telefonoz...) biktimarekin eta/edo honen senitartekoekin nahiz beste pertsona batzuekin komunikatzea.
5. Erasotzaileari debekatu egiten zaio leku jakin batzuetara gerturatzea: biktimaren lantegira, seme-alaben ikastetxera...
6. Biktimaren bizilekuari buruzko datuak ezkututzen dira.
7. Biktimari babes judiziala eskaintzen zaio bulego judizialetan.
8. Armak konfiskatzen dira eta armak izatea debekatzen da.

Babes-aginduak har ditzakeen neurri zibilak honako hauek dira:

1. Etxebizitza, etxeko altzariak eta etxeko gauzak erabiltzea.

2. Seme-alaba adingabeen zaintza eta babespena esleitzea.
3. Guraso-agintearen egikaritzea etetea.
4. Aitak seme-alabak bisitatzea, haiekin komunikatzea eta haiekin egotea baimentzen duen erregimena etetea, edo erregimen hori nola gauzatu behar den zehaztea, adibidez, Elkargune baten bidez.
5. Mantenu prestazio bat ezartzea.
6. Arriskutik urruntzeko edo kalteetatik babesteko beharrezko den beste edozein neurri.

Eskaera biktimak berak, bere hurbileko senitartekoez, abokatuak edo Ministerio Fiskalak berak egin dezake. Salaketa egiteko kalterik gabe, bere egoera ezagutzen duten gizarte zerbitzuek organo judizialaren edo Ministerio Fiskalaren jakintzan jarri behar dute, babes ordenaren prozedurarentzat espediente irekitzeko edo hau prestatzeko.

Neurri zibilak biktimak berak, bere ordezkari legalak edo Ministerio Fiskalak eskatu behar ditu seme-alaba adingabeak edo ezgaiak daudenean.

Babes-agindua salaketa jartzen den unean bertan eskatzea gomendatzen da, nahiz eta geroago ere eska daitekeen.

Salaketarik aurkezten ez denean, babes-agindua bera hartzen da salaketatzat, eta bertan kontaktzen diren indarkeriazko gertaera eta egoerak hartzen dira kontuan.

Eskaera egin ondorengo 72 orduko epearen barruan eman behar du Epaitegiak babes agindua, biktimaren eta erasotzailearen agerraldi baten ondoren. Legeak xedatzen du agerraldi hori bereizita egin behar dutela biktimak eta erasotzaileak, bien arteko aurrez aurrekoak saihesteko.

3.3. Jardunbide penalean alderdi izateko eskubidea: akzioak eskaintzea

(Prozedura Kriminalaren Legea: 109 art.)

Salaketa aurkezteko unean eta Epaitegian lehen aldiz agertzen denean, biktimari jardunbide penalean alderdi izateko duen eskubidearen berri emango dio idazkari judizialak.

Eskubide honek aukera ematen dio genero indarkeria jasaten duen emakumeari aktiboki esku hartzeko salaketa egin ondoren abiarazitako jardunbide judizialean eta akzio penalaren eta, hala dagokionean, akzio zibilaren gauzapenean: biktima “akusazio partikular” gisa ager daiteke jarduera penaletan, eta horretarako bere interesak defendatuko dituen abokatu bat eta bere ordezkari izango den prokuradore bat izendatu behar ditu.

Profesional hauek biktimak berak libreki hauta ditzake, edota Genero Indarkeriaren Ofiziozko Txanda Bereziaren bidez izenda daitezke. Kasu honetan, laguntza eta ordezkaritza doakoak izango dira emakumeari doako justiziaren onura ematen bazaio.

Biktima jardunbide penalean agertzeak eta bertan “alderdi” izateak eskubidea ematen dio bere abokatuaren bitartez frogak eginbideak proposatzeko, eginbide horien gauzapenean esku hartzeko, prozesuak dirauen bitartean hartzen diren erabaki guztiak ezagutzeko eta, erabaki horiekin ados ez badago, beharrezko helegiteak aurkezteko.

Era berean, akusazio partikular gisa, biktimak erasotzailea zigortzea eska dezake, baita jasandako lesio eta kalte galerengatiko ordaina jasotzea ere.

Ministerio Fiskalaren ardura da biktimen eta kaltetuen interesak defendatzea jardunbide penaletan. Delitua egin dela iruditzen bazaio, horren erantzule jotzen duenaren aurka zuzenduko du akusazioa, biktima jardunbide penalean agertu bada nahiz agertu ez bada. Deliturik egin ez dela iruditzen bazaio, ez du akusaziorik egingo edo jardunbidea artxibatzea eskatuko du, adibidez gertaeren frogak nahikorik ez dagoela iruditzen bazaio.

3.4. Gauza itzultzeko, kaltea konpontzeko eta sortutako kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea

(Prozedura Kriminalaren Legea: 100. art.)

Delitu edo falta bat egiteak, suertaturiko kalte-galerak konpontzea behartuko du. Erantzukizun zibil honek gauzaren itzultzea, kaltearen konponketa eta kalte material eta moralen ordaina ematea ekarriko du.

Biktimak prozesu penalean akzio zibila egikaritu baldin badu (erantzukizun zibil hau eskatzeko), ematen den epaian, baldin eta hau kondena-epaia den, errudunari ezartzen zaion zigorraz gain, honek daukan erantzukizun zibila ere ezarriko da, hau delituaren biktimari eragin zaion kalte fisiko, psikologiko edo kalte moralaren arabera mugatuko delarik.

Hala ere, biktimak bere eskubidea erreserbatu ahal izango du akzio zibila prozesu desberdin batean egikaritzeko Arlo Zibileko Auzitegietan, horrela prozesu penalean ez delarik akzio zibila egikarituko. Zentzu honetan gainera, edozein erreklamazio galdatzeko aukera izango du.

3.5. Jarduera judizialei buruz informazioa jasotzeko eskubidea

Biktimak, prozesu penalean esku hartzeko duen eskubidea erabili ez arren, prozesu horretan duen zereginari buruzko informazioa jaso behar du, baita jardunbidearen helmenari, garapenari eta abiadurari buruzkoa.

Biktimak bere eskubideei buruzko informazioa jasotzeko lana Segurtasun Indar eta Kidego, Epaitegi eta Biktimaren Arretarako Bulegoena izango da.

Informazio honen edukia ondorengo hau izango da:

- Prozesu penalean parte hartzeko aukera daukala jakinarazi behar zaio eta gauzaren itzultzeari uko egin edo ez, kaltearen konponketa eskatu eta delitu akzioak eragindako kaltearen ordaina eskatu dezakeela ere esan behar zaio.

- Indarrean dagoen legeriaren arabera jaso ditzaken laguntzak eskatzeko aukera eta prozedurei buruz jakinarazi behar zaio.
- Jarduera judizialen egoerari buruzko informazioa jasotzea, baita jarduera horiek aztertzeke eta horien kopia eta lekukotasunak jasotzea ere. (Botere Judizialaren Lege Organikoa: 234. art).
- Biktimari bere segurtasunean eragin lezakeen edozein erabaki jakinarazi behar zaio: babes agindua, beste kautelazko neurri batzuk hartzea edo moldatzea, inputatuaren espetxeratzea edota baldintzapeko askatasuna agintzen duten autoak, eta erasotzailearen espetxe-egoera. (Prozedura Kriminalaren Legea: 109, 506.3, 544. bis eta ter art).
- Ahozko epaiketaren lekua eta data jakinarazi behar zaizkio. (Prozedura Kriminalaren Legea: 785.3, 962. eta 966. art.).
- Epaia jakinarazi behar zaio, bai instantziarena, baita, hala dagokionean, apelazio-helegitea ebazten duena ere. (Botere Judizialaren Lege Organikoa: 270. art.; Prozedura Kriminalaren Legea: 789.4, 792.2, 973.2. eta 976.3. art).
- Prozesuaren largespena jakinarazi beharko zaio.

3.6. Genero indarkeriarekin lotutako jardunbideen esparruan biktimaren duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea

(1/2204 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero Indarkeriaren aurkako Babes Integralerako Neurriei buruzkoa; 63. Art; Botere Judizialaren Lege Organikoa: 232.2. art.; 35/1995 Legea, Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimei Laguntza eta Asistentzia Ematekoa: 15.5. art.; 19/1994 Lege Organikoa, Auzi Kriminaletan Lekukoak eta Adituak Babestekoa: 2.a. eta 3.1. art.)

Lege Integralak biktimaren duintasuna eta intimitatea babesteko neurri zehatzak aurreikusten ditu.

Batetik, isilpean gordetzen dira biktimaren, bere ondorengoen eta bere zaintzapean edo babespean dauden pertsonen datu pertsonalak.

Bizileku berriaren, lantegi berriaren edota seme-alaben ikastetxe berriei buruzko datuak isilpean gordetzeak ez du soilik biktimaren intimitatea babesten; horretaz gain, bere segurtasuna bermatzeko tresna garrantzitsua da, inputatuak datu horiek ezagutu ditzan saihesten baitu.

Helburu horrexekin, biktimak hirugarren pertsona baten helbidea eta telefonoa eman ditzakeela xedatzen du babes aginduaren eskaera-ereduak; horrela, Segurtasun Indar eta Kidegoak edota organo judizialak pertsona horri helarazi ahal izango dizkio jakinarazpenak.

Era berean, Epaitegiak erabaki dezake, ofizioz edo biktimaren beraren nahiz Ministerio Fiskalaren eskariz, jarduera judizialak ez daitezela publikoak izan eta bistak ateak itxita egin daitezela.

3.7. Delituen biktimentzat laguntzak

(35/1995 Legea, abenduaren 11koa, Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimei Laguntza eta Asistentzia ematekoa; Indarkeriazko Delituen eta Sexu Askatasunaren aurkako Delituen Biktimentzako laguntzen arautegia, maiatzak 23ko 738/1997 Errege Dekretuak onartua)

Espanian gertatu diren indarkeriazko edo dolozko delituen zuzeneko edo zeharkako biktimen onerako laguntza publikoak dira, baldin eta hauen ondorioak heriotza, gorputz lesio larriak edo buru edo gorputz osasuneko kalte larriak diren; sexu askatasunaren aurkako delituen biktimentzako ere badira laguntza hauek, nahiz eta hauek indarkeria gabe eginak izan. Gainera, prozesu penalaren amaiera dakarren ebazpen judizial irmo bat izan arte

beharrezkoak diren behin-behineko laguntzen emakida aurreikusiko da, baldin eta biktima edo bere onuradunak egoera ekonomiko prekario batean gelditu direla egiaztatu daiteken.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntza hauen onuradunak izan daitezke delitu baten biktima izan direlako.

Laguntza hauen onuradunak zuzeneko biktimak izan daitezke, delituaren ondorio zuzena bezala beren buru edo gorputz osasunean kalte edo lesio larriak jasan dituztenean; eta zeharkako biktimak izan daitezke, heriotzaren kasuan, hildako pertsonaren seme-alabak direnean.

Laguntza hauek eskatzeko epea urte batekoa izango da, delitu-egitatea gertatu zenetik zenbatzen hasiko delarik berau. Hala eta guztiz ere, epe hau gelditu egingo da prozesu penala hasten denean eta berriro ere irekiko da ebazpen judizial irmoa ematen denean.

INFORMAZIO TELEFONOAK

Estatu-mailan	016 Entzuteko urritasuna duten pertsonak: 900 116 016
Andaluzia	900 200 999
Aragoi	900 504 405
Kanariak	112
Kantabria	942 214 141
Gaztela-Mantxa	900 100 114
Gaztela eta Leon	012
Katalunia	900 900 120
Extremadura	112
Galizia	900 400 273
Balear Uharteak	112/971 178 989
Errioxa	900 711 010
Madril	012
Nafarroa	012
Euskal Autonomia Erkidegoa	900 840 111
Asturiasko Printzerria	900 209 629
Murtziako Eskualdea	112
Valentziako Erkidegoa	900 580 888
Ceuta	900 700 099
Melilla	952 699 214

Informazio gehiago: Autonomia Erkidegoen Berdintasun Erakundeetan, Emakumeen Arretarako Zentro autonomiko eta tokikoetan, Epaitegien egoitzetan dauden Delituaren Biktimen Arretarako Bulegoetan, Abokatuen Elkargoen Orientazio Juridikoko Zerbitzuetan eta emakumeen eta atzerritarren erakunde desberdinetan.

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren web orria:
<http://www.seigualdad.gob.es/violenciaGenero/portada/home.htm>